

# Bero-beroan

## Lekeitioko Euskal Zine eta Bideo Bilerari gehiago ez

**ANTOLATZAILEEK** hala esan dute, 2007ko azaroan egin zen XXX. Bilerari azkena izan dela. Hogeita hamar urteren ondoren, edizio gehiago ez antolatzeko eman duten arrazoia diru premia da, zehatzago esanda, instituzioen diru-laguntza “txikia”. Euskarazko zinemaren munduan erreferente den ekimen horren antolatzaileek salatu dutenez, “makroproiektu txoro eta erraldoiak laguntzen diren bitartean hain aberasgarriak diren Lekeitiokoa bezalako zinemaldiak ez dira laguntzen, eta horrek azkenean jendea erretzea dakar”.



2007ko Bileraren kartela.

## Klusterraren I. Jardunaldia

**OTSAILAREN 29RAKO** antolatu du Soziolinguistika Klusterrak *Geroa bermatzeko, oraina ezagutu* izeneko jardunaldia. Egun osoan zehar honako hauen hitzaldiak izango dira: Xavier Vila, Malores Etxeberria eta Alex Mungia, Iñaki Marko, eta Iñaki Eizmendi. Arratsaldean “Euskararen kale erabilera 1989-2007” izenburupean mahai-ingurua izango da Txillardegia, Iñaki Martínez de Luna eta Kike Amonarrizekin.

Informazio gehiago: [www.sociolinguistika.org/jardunaldia](http://www.sociolinguistika.org/jardunaldia)

## Elebila.eu iazko webgune euskaldun onena

**TEKNOPATEN** arabera behintzat bai. Sariketa, [zazpi@2007](mailto:zazpi@2007), Teknopata.net blogak (Joxe Rojasena) antolatu du, eta internautek zazpi webgune euskal-

dun onenak aukeratu dituzte. 2007ko abenduan wiki bat zabaldu zuten eta bertan 31 hautagaiekin osatu zuten zerrenda, ondoren hilabeteko epean botoa emateko aukera izan dute. 200 internauta euskaldunek hartu dute parte. Honakoa da sariketaren sailkapena: [Elebila.eu](http://Elebila.eu), [Euskalbar.eu](http://Euskalbar.eu), [Euskaltube.com](http://Euskaltube.com), [Eibar.org](http://Eibar.org), [AHTgelditu.org](http://AHTgelditu.org), [Gaur8.info](http://Gaur8.info), [Irratia.com](http://Irratia.com) eta [Euskalnatura.net](http://Euskalnatura.net).

## Atzera-karga arintzeko aholkuak

**MITXEL KALTZAKORTAK** UEUren eskutik argitaratu du *Prosa komunikagarriago egiten. Zenbait proposamen (1)* liburua. Kazetaritzan eta komunikazioan aritzen den ororentzat da batik bat interesgarria. Kaltzakortak hainbat proposamen egin ditu euskal prosa arintzeko, komunikagarriago egiteko, eta hainbat adibide jarri atzerakarga nola konpondu erakusteko.

### TALAIAN

## Greba eraginkorra

Greba guztiak ez dira eraginkorrak. Osakidetzako langileek egindakoa eraginkor izaten hasi da. Beraien helburua lortu dute: ugazabak ezarritako “dekretazoa” bertan behera utzi eta horiek negoziaketa mahaira itzultzea. Osasun Sailburuak, beraz bere gobernuak, atzera egin behar izan du hainbat arlotan: grebalariez esandakoan (“diruzale” deitu zien), publizitate bidez eginiko manipulazioan eta greba jarraitu dutenen kopuruaz adierazitakoan. Atzera egin eta sindikatuekin negoziaketa berria onartu behar izan dute. Ikusi egin beharko da orain artean arlo teorikoan egindako atzerapausoa, alor praktikoan ere ematen den proposamen berriarekin. Aurrekoa mozorrotuta mantentzea ez litzateke bidezkoa; zirikatzeke beste modu bat besterik ez litzateke. Eta sindikatuek deitu dituzte greba berriak, otsailaren 21erako eta martxoaren 6rako.

Denek ikasi beharko lukete zerbait greba honetatik. Langileek ikusi dute batasuna dagoenean, greba eta mobilizazioak eraginkorrak direla eta euren helburuak lortzen dituztela. Parte hartu gabe ere hainbat hobekuntza ekonomiko eta sozial lortuko dituztenek etorkizuneko mobilizazioetan partehartzailerik izatea pentsatu beharko lukete. Ugazabak, Osakidetzak kasu honetan, ikasi beharko luke gatazkak usteltzen utzi eta “dekretazok” ezartzea irtenbiderik okerrena dela eta errentagarritasun ekonomiko eta sozial gutxi dakarrela. Orain, garrantzitsuena alde guztiek arrazionaltasunez negoziatzea da eta ase arteko akordioa lortu arte mahaitik inortxo ere ez jaikitzea. Horretarako, guztiek eman beharko dute amore. Izan dadila Osakidetzaren sendatua eta erabiltzaileek etekinak lortzeko.

Juan Mari Arregi

### BAHEA

Bernat Joan i Mari eivissarra, soziolinguista eta Europako Parlamentuko diputatua da. Baròmetre neurketa tresnak emandako datu bat egin zaio deigarri: Herrialde Katalanetan, gutxi gorabehera milioi bat pertsona nahiko erraz moldatzen dira ingelesez:

“Turismoan aitzindari izan nahi badugu, edo komunikazioaren teknologia berrietan aurrean egon nahi badugu, ikerketan eguneratuta egon nahi badugu, edo gure unibertsitateek maila onargarria izatea, ezin dugu jarraitu ingeleza jakiteari bizkar emanez, eta berriro diotsuet nazioarteko komunikazio hizkuntza dela ingeleza.

Tamalgarría da hamabi milioitik milioi batek bakarrik hitz egin ahal izatea ingelesez, baina sei milioik ingelesez jakitea lortuko bagenu ere, ez litzateke festa ospatzeko modukoa izango.

(...) Lortzen ez badugu, erkidegora itxita jarraituko dugu, herrira; gure bizilagunak bezala, abarkak kendu ezin ibiliko gara. Tamalgarría izango litzateke”.

## Demokraziarik ez Euskal Herrian

**EUSKAL HERRIAREKIKO** bederen ez da demokraziarik. Zalantzan jarri liteke autodeterminazio eskubiderik aitortzen ez duen estatu bat demokratikoa dei daitekeen edo ez. Luze eztabaida liteke horretaz. Baina politika egiteagatik alderdiak legez kanpo jarri eta haien buruzagiak espetxeraten dituen estatua ezin daiteke demokratikoa izan, nahiz eta neurriok zuzenean populazio multzo bati baino ez eragin. Ez zuzenbide estatuarik, ez demokraziarik.

PPk eta PSOEek erabat berengantua dute azkenean topatu dutela ENAM garaitzeko giltza, ohiko polizia bideak eta ilegalizazioek hondoratuko dutela dagoeneko indar metaketarako gaitasunik ez duen mugimendua. Erre-

presio selektiboa ei da bidea, zuzendaritzak bata bestearen atzetik desegin, berrantolaketa eragotzi eta datozen gazteek harri bertsuetan estropezu egin dezatela behin eta berriz.

Eta mende hasieran ehundutako estrategia berriak akaso lortuko du ezker abertzaleko erakundeak ahultzea, baina lortuko ez duena da gatazka politiko bortitza gainditzea. Urte askotxo iragan dira jada hortaz ohartzeko moduan eta Espainiako agintariek ere aspaldi ohartuta behar lukete.

Baina seguruenik berdintsu zaie, baldin eta ENAMeko fenomeno burbuila gisa mantentzea lortzen badute, borroka armatu eta guzti ere burbuila horrek une batean sortzen

duen presioa guztiz jasangarria delako. Eta agian komenigarria ere bai, Espainiako barne kohesio tresna gisa guztiz erabilgarria delako. Eta erabakitze eskubidearen aldekoen meta eragozten duen osagai garrantzitsuena delako. Errepresio uholde berri honek, gainera, negoziatio prozesu berri bat izatekotan, indarretik abiatzea ahalbidetzen dio Estatuari.

ENAMeko jendeak borrokan du esperantza... eta Estrasburgoko Auzitegian. Espainiarentzat kolpe latza litzateke Alderdien Legea hondortzea, baina ez estrategia berriaren amaiera. Espainia beldur da Estrasburgorekin, baina hango epaiak zazpi urtez behin datoz. Okerrenera ere prezio onargarria Estatuarentzat.

Jaso astero **ARGIA** etxean



Abantaila ugari izateaz gain, Harpidedunen Guneko kide ere izango zara

Izen deiturak: .....

Helbidea: ..... Posta kodea: ..... Herria: .....

Herrialdea: ..... Jaioteguna: .....

N.A./I.F.K.: \_\_\_\_\_ - Tel./Faxa: ..... e-posta: .....

Ordainketa mota:  Bankuz  
 Taloez  
 Transferentziaz KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L.ren kontura (ARGIA): 3035 0036 14 0360048647  
 Bankuz ordaintzekoek betetzeko soilik

Banku edo aurrezki kutxa: .....

Titularra: ..... N.A./I.F.K.: .....

Titularraren helbidea: ..... Titularraren telefonoa: .....

Entitatea: \_\_\_\_\_ Sukurtsala: \_\_\_\_\_ K.D.: \_\_\_\_\_ Kontu zenbakia: \_\_\_\_\_

Data: ..... Sinadura: .....

Harpidetza-orri hau zure datuekin bete eta helbide honetara bidali: 142 P.K. / 20160 Lasarte-Oria -Gipuzkoa-

**Aukeratu ongi etorri oparia**

“Kirolaz Badakit”  
mahai-jolasa

“888 txiste” liburua

“Txoriak-txori”  
lamina

%25eko beherapena  
ikasle bazara

**Urtebeteko harpidetza:**  
2008ko prezioak

135 € Hego Euskal Herrian  
165 € Ipar Euskal Herrian

**ARGIA**

ARGIA

55